

Aio zurina, aio!



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Ez dakit nola harritzen garen! Gezurra dirudi; mendeak joan eta urteak etorri eta badakiguna berretsri besterik egiten ez badigu ere, eguraldi gogaikarriak pe-traltzen gaitu. Zera dio, behin eta berriz: hemen beroa eta hezetasuna elkarrekin bizi izaten dira. Horrek harrotzen ditu onddoak eta haien alaba diren gaitzak.

Onddoek sortutako gaitzak sufreakin eta kobreakin tratatzen ditugu. Bi gai horiek naturalak edo sintetikoak izan daitezke. Naturalak harri natural batetik erauzitakoak dira. Sintetikoak industria kimiko batean sortutakoak. Tratamenduak egindakoa gai horiek azkenean lurrera doaz. Sufrea, inorganikoa izateagatik hor nonbait. Kobrea, ordea, metal astuna da, eta nora joan han pilatu. Neurririk gabe emanez gero, kutsadura areagotzen da. Tamainan erabilita ere nahikoa lan badu. Azken beltzean landareak, lurrak, urak eta gu geu kutsatuko gara. Biak, sufre eta kobrea, ahalik eta gutxien erabili behar dira.



Zurinak jotako landarea.

POLINATOR-CC BY SA

Ez dago aukera handirik gaitzei aurre egiteko. Aurrea hartzea da eraginkorrena, bi aieketan lan eginda: landare aldaera sendoak eta gaitzak jasateko gai direnak aukeratzea eta, bestetik, onddoak harrotzen dituen hezetasunari buru egitea.

Panorama honekin jende asko ari da, han eta hemen, landareen osasungintzan. Onddoak kemengabetzen dituzten fungizida aukera mordo dago dagoeneko frogatua: esnekiak, errautsak, propolioa, bikarbonatoak, ur oxigenatua... Denek lan bertsua egiten dute: landa-

rearen azala lehortu eta zaildu. Horiez gain silize ugari duten landareen urak ere baliatzen dira: azeribuztanarena eta asunarena. Lehenak gaitzari aurre egiteko indartzen du landarea. Bigarrenak, nahiz eta gaitzak jo izan, buelta eman eta suspertzen.

Duela gutxi jakin dut oidioari edo zurinari aurre egiteko beste erremedio interesgarri baten berri: *Quercus* generoko landareen kuku-sagarra. Lehor-lehor dagoenean eho, eta hautsa zabaldu landarearen gainean. Aio zurina, aio! ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Ardiak dauzkat, eta landetan ez zait asunik egiten baina bazterretan asko egiten zait, nire iritzian ardien korotzek eta txizek dakarte hori, zer egin nezake asunok galarazteko? Gainera, ardiak dabilzan landetan "asto patana" (menda) egiten da, zer egin daiteke galtzeko?
Jon Rekalde (Usansolo)



Kaixo Jon. Ardiak eta aziendak ibiltzen diren tokietan, bide, landa, larre eta abarretan ohikoa da asuna bezala batana edo menda azaltzea. Zeuk ondo esaten duzun bezala aziendaren gorotza eta txizen ondorio da. Hondakin horiek nitrogeno asko dute eta pilatzen den tokietan erruz etortzen dira, indarrean, bi landare horiek.

Galtzeko azienda kendu beharko litzateke, baina hori zaila izaten denez landareak

moztu eta moztu beste aukerarik ez duzu. Biek lurpean sustrai sendoak dituzte eta horiek hustu behar dira. Moztu eta moztu, indarra kendu eta pixkanaka akabatzeke. Mozteko lan hori, kalte handiena egiteko ilgora denean egin.